MUNGIA
UDALA

## SAN ANTONTXU 2022

Izurritearen eboluzinoa ikusita, San Antontxuko azoka tradizionala bertan behera ixtea erabagi dogu igazko lez. Erabagi gatxa izan da benetan bere.

Itzel tristetzen gaitu erabagi hori hartu behar izanak, geure ohituretan oinarritutako jaia dalako, geu garan horretan, gure historian, gure kulturan, hau da, mungiarron identidadean. Halanda bere, osasunaren alde egin eta erantzunkizunez jokatuteko momentua dala uste dogu.

Datorren urtarrilaren 18a urtero lez gozatzeko aukerarik izango ez dogun arren –hau da, gure gastronomia protagonista dala–, gonbidatu egiten zaituegu egunotan egingo diran kultur eta kirol jardueretan parte hartzen, baita hileroko ganadu feria ikusten bere.

Jarduera guztiotan beteko dira indarrean dagozan osasun-neurriak. Horretara, danontzako hain berezia dan San Antontxu egunari berea emoten ahaleginduko gara, baina gure osasuna jagonda.

Beste alde batetik, herritarroi eskatzen deutsuegu segidu daizuela, orain arte egin dozuen lez, alkartasunez eta errespetuz jokatuten. Egoerea irauli ahal izateko, beharrezkoa da arduratsuak izatea. Animo eta jarraitu daigun alkar jagoten. GORA SAN ANTONTXU ETA GORA MUNGIA!

## SAN ANTONTXU 2022

Viendo la evolución de la pandemia, hemos tomado la difícil decisión de suspender, por segundo año, la tradicional feria de San Antontxu.

Nos entristece profundamente, porque es una fiesta basada en nuestras tradiciones, lo que es nuestro, lo que somos, nuestra historia, nuestra cultura, en definitiva, la identidad de las y los mungiarras. No obstante, creemos necesario hacer un ejercicio de responsabilidad por la salud.

Aunque el próximo 18 de enero no podamos disfrutar de manera habitual, con nuestra gastronomía como protagonista, os invitamos a participar de las diversas actividades culturales y deportivas que se organizarán en las fechas próximas, además de la feria de ganado que celebramos mensualmente.

En todas ellas se garantizarán las medidas de seguridad sanitarias. De esta manera, trataremos de mantener vivo el espíritu y la esencia de un día tan especial para todas y todos, pero mirando por la salud.

Por otro lado, pedimos a la ciudadanía que siga demostrando su solidaridad y su respeto. Es necesario que actuemos con responsabilidad, para darle la vuelta a esta situación. Mucho ánimo y sigamos cuidándonos. GORA SAN ANTONTXU ETA GORA MUNGIA!

Mungian, 2021eko abenduaren 29an

ALKATEA

Ager Izagirre Loroño